

JOSEBA PERMACH HB-KO MAHAI NAZIONALAREN KOORDINATZAILEA



PABLO S. QUIZA

«Aukera izugarria dugu burujabetzaren alde egiteko grebaren bidez»

Astearterako egin du Euskal Herriarrok-ek greba orokorrerako deialdia, eta Permachek uste du milaka herritarrek egingo dutela bat deialdiarekin eta *Burujabetza da bakea* aldarrikapenarekin.

Enekoitz Esnaola | DONOSTIA

EHren Donostiako egoitza ia hutsik dago, oso goiz baita oraindik. Han da, baina, Joseba Permach, «logura pixka batekin» oraindik, «berandu» erretiratzen baita. Ez da lo egon, ordea, elkarriketan.

■ Zeintzuk dira asteartean, hilaren 10ean, greba orokorra egiteko arrazoiak?

Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Herria amaitu nahi dute, eta batik bat azkeneko hilabeteetan erasoak areagotu egin dira. Batetik, ezker abertzalearen kontra: hor daude

Ekin, Haika... kasuak. Eta, oro har, Euskal Herriaren kontra ere ari dira: irakaskuntza, AEK, Zabalitzen... Tortura salaketak ere ugaritu egin dira. Ikusi genuen ari zirela egiten mobilizazio garrantzitsu batzuk —irakaskuntzaren manifestazioa, Oinarririk-ena, Haikaren alde-

BI ESTATUEN ERASOALDIA

«Espainiak eta Frantziak Euskal Herria amaitu nahi dute, eta erabaki genuen ezinbestekoa zela erantzun orokor bat ematea; horregatik greba»

EH-REN APUSTUA

«Apustu handia da, baina gure planteamendu zehatza ez da grebarena soilik, 'Burujabetzaren aldeko hitzarmen nazionala' ere hor dugulako»

koa...—, eta erabaki genuen ezinbestekoa zela erantzun orokor bat ematea. Horregatik izango da greba.

■ Euskal Herria amaitu nahi badute, zergatik dago greba deialdi honen atzetik ezker abertzalea soilik?

1998ko irailean irekitako prozesua berriro martxan jartzera gindoazela esan genuen orain dela hilabete batzuk, ez baikau-de prest tren hura gelditzen uzteko, baina, zoritxarrez, EAJ, EA eta ELA men ari dira egiten estatutuen erasoaldi horren aurrean.

■ Baina greba hau dela-eta harremanik izan al duzue?

Bai, plazaratu diegu erantzun baten beharra, baina euskal gizarteak badaki eragile haiek nolako jarrera duten une hauetan.

■ Zergatik dute zuek uste duzuen jarrera hori?

EAJ eta EA ondo ari dira erakusten zergatik bukatu zen ETaren 1998ko ekimen hura bukatu zen bezala, bi alderdi haiek ez direlako inondik inora gauza espainolismoaren erasoaldiari aurre egiteko, ausardia falta erakusten ari baitira, eta uste dute egungo legediaren baitan erantzun daitekeela.

■ Ezker abertzaleak uste al du grebaren bitartez EAJren eta EAren jarrera baldintza dezakeela?

EAJk eta EAK berriro ikusi behar dute milaka eta milaka euskal herritar gaur egungo esparrua gainditzeko prest daudena, eta grebak hori frogatuko duela uste dugu.

■ Eta gizartearen aldetik zer jarrera espero duzue astearterako?

Ona, azken asteetan jendearen eta taldeen ehunka atxikimendu jasotzen ari garelako.

■ Apustu handia egin du ezker abertzaleak, ezta?

Apustua handia da, baina egin beharra dagoela uste dugu. Alde horretatik, ezker abertzaleak planteamendu zehatza egin du. Ez soilik, ordea, greba honen bitartez erantzun bat emateko estatuen erasoaldi horri, baizik eta aurrera begira jorratu behar den bidea zein den ere planteatu dugu, *Burujabetzaren aldeko hitzarmen nazionala* aurkeztu berri dugulako. Gainera, grebako

emaitza ez da begiratu behar maila kuantitatibo batean.

■ Zergatik greba orokorraren deialdia EAEko hauteskunde- en atarian eta jokoan asko dagoenean?

Ez dut esango kasualitate hutsa denik, baina gu azarotik ari ginen barne hausnarketan, erasoaldia areagotu zenetik. Gogoeta horrek denbora bat behar izan du ezker abertzalearen barruan, barneratzen joateko, eta erabaki hau hartu genuen une bertsuan deitu ziren EAEko hauteskundeak. Horrela egokitu dira, eta aukera izugarria dugu bozen aurretik burujabetzaren alde egiteko, EAJ eta EA ohar daitezkeen Euskal Herriak benetan baduela indar eta grina nahikoa bere bide propioari eusteko.

■ Baleko tresna al da grebarena helburuak lortzen joateko? Aurretik egin izan diren grebek hori erakutsi al dute?

Greba guztiak dira desberdinak, azken urteetan egin izan direnak ezker abertzaleak soilik deitutakoak, baita sindikatuek deitutakoa ere, baina, grebak greba, guri garrantzitsua iruditzen zaigu tresna hau, gerora begira bere emaitzak ematen dituelako; grebarena ez baita egun bateko jarduna, aurretik eta batik bat ondoren ere, lana egiten delako aldarrikapen baten inguruan, eta horrek eragina izaten du gizartean.

■ Lurraldetasuna aipatzen da maiz; zergatik ez da Ipar Euskal Herrian grebara deitu?

Iparaldean ez dugu grebara deitu, baina lehen aldiz antolatu da ekimen nazional bat, *burujabetza da bakea* aldarrikapenean, eta Iparaldean greba deialdirik ez bada egin ere, mobilizazio eguna egitera deitu da.

■ Azken batean zer lortu nahi duzue grebarekin?

Hiru gauza. Bat: arazo politikoa dagoela gizarteratzea, eta Euskal Herriaren burujabetza onartetik iritsiko dela bakea. Bi: estatuei esango diegu ez dutela lortuko Euskal Herria suntsitzea. Eta hirurik: egun horrek hausnarketa eguna izan behar du, us-tez abertzaleak diren alderdi horiek ohar daitezkeen alferrikakoa dela Madril eta Parisen aurrean belaukatzea.